

5

ENE/NIRE, NIRI

Euskal pertsona-izenordainen deklinabidean batasuna lortzeko, punturik korapilotsuena, forma indartuen arazoa alde batera utzirik, *ni* izenordainaren *noren* kasuari dagokiona da. Euskalki guztietako testu zaharretan kasu horren forma *ene* zen, bizkaieratik zubererara:

Arren, ene andra Milia Lasturko, / Mandatariak egin deust gaxtoto (TAV 3.1.5).

Ene begiakaz biotzeen artean / Errenkore andiak erne zitean (TAV 3.1.22).

Zeren sobera bekatü egin baitüt pensamentüz, hitzez eta obraz: ene faltaz, ene faltaz, ene falta handiz (FPrS 1676, 9).

XVII. mendearen amaieran *nere* forma agertzen da, goi-nafarrerazko testu batean, eta hurrengo mendean urte bertsuetan azaltzen da lapurteraz (1733) eta gipuzkeraz (1739). Geroago, baina mende berean, *nire* forma agertzen da bizkaieraz. Harrez gero, *nire* eta *nere* nagusituz doaz Hegoaldean *ene* forma zaharraren kaltetan, gaur egun, batez ere, zenbait esapide fosildutan (*ene!* e.a.) erabiltzen dena. Iparraldean, aldiz, *ene*, *nere* bezain erabilia da, ahoz nahiz izkribuz.

Mende honetan, *nire* aldaeraren aldeko joera nabaria gertatu da Hegoaldean. Joera hori aurreko belaunaldietan hasi zen nabarmentzen, Azkuek bere “Gipuzkera osotuan” *nire* forma proposatu zuenez gero, eta erabat normala da Orixegan eta bere belaunaldiko beste hainbat idazle ez bizkaitarren. Bestalde, jakina denez, *nire*-ren aldeko joera hori areagotu da euskara batuan. Orobat, ezin ahaztuzkoa da, batasunaren ikuspuntutik, Bizkai aldeko hainbat idazlek *nire* aldaerari dion atxikimendua.

Neri-ri dagokionez, forma berria da, XIX. mendearen erdialdean *nere*-tik analogiaz sortu zena, eta harrez gero batez ere gipuzkerazko idazleek (ez, dena dela, guztiek) erabili dutena; *niri*, aldiz, euskalki guztietan (zubereraz izan ezik) agertzen da lehen testuetatik hasita. Kasu honetan zahartasuna eta hedadura kontuan harturik *niri* da hobestekoa. *Neri*-ren arrazoi berberengatik *eni* formak, batez ere zubereraz erabili dena, baztergarria dirudi.

Hauxe da, hortaz, Euskaltzaindiaren erabakia: *ni* izenordainaren *noren* kasuan *nire* erabil dadila (eta, jakina, *niretzat*, *nirekin*), eta orobat *ene*, maila jasoan bederen; *nori* kasuan *niri* erabil dadila.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua)